

# HERENTZIA GENETIKOAREN EREDUA

## Autosomiko errezesiboa

Gizonei eta emakumeei eragin diezaike maiztasun berarekin. Mutazio geniko beraren eramaile diren gurasoen seme-alaba bakoitzak gurasoen mutazioa heredatzeko eta gaixotasuna izateko aukera % 25eko probabilitatea du. Horrek esan nahi du, halaber, haurdunaldi bakoitzean 4 probabilitatetik 3 aukera daudela eritasuna ez heredatzeko. Aukera hori berdina da haurdunaldi bakoitzean eta berdina dio neska ala mutila izatea. Gainera, haurrak % 50eko probabilitatea du bere gurasoetako baten gene mutatuaren kopia bat heredatzeko, eta, beraz, osasuntsua izango da, baina eramailea gurasoak bezala (ez du gaixotasunik, baina gene-bikotearen genearen kopia mutatua du). Gaixotasuna agertzeko, garrantzitsua da gurasoek mutazioa izatea gene berean (gogora dezagun 250 gene eragiletik gora daudela deskribatuta), eta arriskua areagotu egiten da gurasoak familia berekoak badira, kasu horretan geneak partekatzen baitituzte, horregatik, eragindako umea jaiotzeko probabilitate gehiago daude.

